

Azaroak 25, emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna

# emakumeon POBRETZEARI aurre egin

langabezia,  
prekarietatea,  
miseriazko pentsio  
eta prestazioak

Espainiar eta Frantziar estatuek, zein Gasteiz eta Iruñeko gobernuek, herria pobretzearen aldeko hautu politikoa egin dute. Horretarako krisiaz baliatu, eta ezarritako neurri, erreforma zein murrizketa guztiak bide beretik joan dira; gehiago dutenek gehiago izan dezaten, eta gutxiago dutenek aldiz, gero eta gutxiago.

Jada ez du inork zalantzan jartzen euskal herritarren gehiengoa gero eta pobregoa garela. Pobretze prozesu honen adierazle diren datu eta estatistikek, gehienetan, genero ezberdintasunak ezkututzen dituzten arren, kaltetuenak emakumeak izaten ari gara.

Emakumeon parte hartzea lan merkatuan beti izan da bigarren mailakoa, aitortza baxuagoko eta lan baldintza prekarioenetako sektore eta lanpostuetara bideratu gaituzte, gure lana gizonezkoen lanaren osagarritzat jo dutelako.

Gaur egun egoera are gehiago gogortu da, behin behinekotasun tasak gero eta handiagoak direnean, emakumeon kasuan %23,8koa da, gizonezkoen %17,7aren aldean. Patronalak lanaldi partzialak gero eta gehiago zabaltzeko apustua egin du eta ezin dugu ahaztu lanaldi mota honetan dihardutenen %94,69a emakumezkoak direla. INEren azken datuen arabera, gizonezkoek baino %36,2 gutxiago kobratzen dugu. Gizon eta emakumeon soldaten arteko aldea gero eta gehiago handitzen ari da eta honek, gainera, ondorio zuzenak ditu ondoren jasotzen ditugun prestazioetan (langabezia, ezgaitasunak, erretiro pentsioak...).

Bien bitartean, erakunde ezberdinek, arazoaren muinera jo eta erabaki ausartak hartu beharrean, dagoeneko ahula eta nahikoa ez den babes sozial sistema eta prestazioak hartu dituzte jomugan. Honek kolpe bikoitza dakarkigu emakumeoi: alde batetik, emakumeok gara hein handi batean prestazio hauen jasotzaileak (datu esanguratsu bat: guraso bakarreko familien artean %88,6ak emakume bat dute buru eta, hauetatik, %40k langabezia dagoen emakume bat) eta, bestetik, sistemak bete beharko litzuzkeen premiak, zaintza kasu, emakumeon bizkar uzten dituzte.

Pobrezia ere indarkeria da, emakumeak pobrezia kondonatu nahi gaituzte, menpeko izaki bihurtu. Emakumeok burujabetza ekonomikoa behar dugu gure bizi proiektuak modu aske batean garatu ahal izateko. Honetako gaur egungo lan harremanen eredia irauli behar dugu, eredu berri bat behar dugu, generoen araberako lan banaketa gairatutako duena eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna oinarri izango duena. Lana eta aberastasuna banatzea bideratuko duen eredia, langabezia, prekarietatea eta pobrezia egoerei aurre eginez eta langileen eskubideak errespetatuz !

LANA ETA ABERASTASUNAREN BANAKETAREN ALDE  
ANTOLATU ETA BORROKATU



25 de noviembre, día internacional contra la violencia hacia las mujeres

# hagamos frente al **EMPOBRECIMIENTO** de las mujeres

para, precariedad,  
pensiones y  
prestaciones de miseria

Tanto los estados español y francés, como los gobiernos de Gasteiz y de Iruñea, han optado por empobrecer nuestro país, empobrecer a la ciudadanía es su clara apuesta política. Utilizando la crisis como excusa, todas las medidas, reformas, así como los recortes impuestos han ido en la misma dirección: que quienes más tienen sigan teniendo aún más, y que quienes menos tienen, tengan todavía menos

Que la mayoría de la ciudadanía vasca es cada vez más pobre, es algo que ya nadie pone en duda. Aunque los datos y estadísticas que prueban este proceso de empobrecimiento, en la mayoría de las ocasiones ocultan las diferencias por razón de género, nuevamente las más perjudicadas en este proceso somos las mujeres.

La participación de las mujeres en el mercado laboral siempre ha sido de segundo nivel, se nos ha dirigido a los sectores y empleos de menor reconocimiento social y mayor precariedad laboral, dado que nuestro trabajo ha sido considerado siempre complementario al trabajo realizado por los hombres.

Hoy en día la situación se ha endurecido todavía más; las tasas de eventualidad son cada vez mayores, la de las mujeres es del 23,8% y la de los hombres, en cambio, del 17,7%. Ante la apuesta realizada por la patronal para aumentar las contrataciones a tiempo parcial, no podemos olvidar que el 94,69% de las personas que trabajan con este tipo de jornada son mujeres. Según los últimos datos del INE, cobramos un 36,2% menos que los hombres, y la diferencia salarial entre hombres y mujeres, en lugar de corregirse, es cada vez mayor. Estas diferencias, además, repercuten directamente en nuestras futuras prestaciones (desempleo, incapacidades, pensiones de jubilación...).

Entre tanto, las instituciones, en vez de ir al fondo del problema y tomar decisiones valientes y eficaces, han puesto en tela de juicio el, ya de por sí débil e insuficiente, sistema social de protección y las prestaciones. Esto nos ha supuesto un doble golpe a las mujeres: por una parte, las mujeres somos en mayor medida las receptoras de dichas prestaciones (un dato significativo, el 88,6% de las familias monoparentales tienen una mujer como cabeza de familia, y de ellas, el 40% tienen como cabeza de familia una mujer en paro) y por otra parte, dejan a cargo de las mujeres necesidades que dichas instituciones debieran cubrir, por ejemplo, las labores de cuidado.

La pobreza también es violencia. Quieren condenarnos a las mujeres a la pobreza, convertimos en personas dependientes y subordinadas. Las mujeres necesitamos ser económicamente independientes, para poder desarrollar en libertad nuestros proyectos de vida. Para ello, debemos cambiar el actual modelo de relaciones laborales, necesitamos tener un nuevo modelo que supere la división laboral por razón de sexo, y que esté basado en la igualdad entre hombres y mujeres. Un nuevo modelo de relaciones laborales que tenga como objetivo el reparto del trabajo y de la riqueza, un modelo que haga frente al desempleo, la precariedad y las situaciones de pobreza, y respete los derechos de las personas trabajadoras.

LANA ETA ABERASTASUNAREN BANAKETAREN ALDE  
ANTOLATU ETA BORROKATU

